

## FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresa behar den bezala funtzionatzeko eta aurrera eramateko bazkide ugari behar ditugu, bakoitzak gehitzen duenarekin ahalik eta zerbitzu hoberena eskaini ahal izateko.

Batetik, jatetxe bat izanda, sukaldari talde itzela bilatu egin dugu, hain zuzen ere, Basque Culinary Center sukaldaritza unibertsitatean hezitako chef sortzaile eta trebatuak. Horien artean, Chef Bosquet foodie eta influencer mediatikoa dago; eta menuak diseinatzen eta sukaldatzen laguntzen badu ere, bere eginkizun nagusia gure zerbitzuak sare sozialen bidez hedatzea eta promozionatzea da. Gainera, lan honetarako berak sukaldaritza osasungarriko tailerrak antolatzen ditu Lamprea jatetxean, ahalik eta jende gehien gure instalazioetara hurbiltzeko. Talde guzti honen lana funtzionatzeko, janari-hornitzaile hoberenak bilatu ditugu; hainbat jaki itsasotik lor badezakegu ere, hala nola, algak, itsaskiak, arrainak, etabar; primerazko kalitatezko lehengaiak behar ditugulako itsas produktuak akonpainatzeko.



Bestetik, proiektu oso berritzaile eta polit bati ekin diogu bazkide berezi batzuekin. Hain zuzen ere, Tomás Alía diseinatzaile ospetsuak eta Beatriz Erquicia etorkizun oparoko arkitekto gazteak lagundu nahi izan gaituzte eta gure gunea apaintzeko eta diseinatzeko izugarri lagundu gaituzte. Haien lan itzelarekin, dekorazio oso maritimo eta mediterranearra lortu dugu; berrikuntza, modernitate eta paradisuako atmosfera batekin nahsaketa orekatua lortuz. Erainkuntzaren barneko altzariak eta azpiegiturak hornitzaile lokalak zuzkitu dizkigute, eta hainbat artikulo textil [Ecoalf](#) enpresak diseinatu dizkigu eksklusiboki plastiko birziklatuarekin eginak. Baina horretaz gainera, plastiko birziklatu ugari erabili dugu dekorazioan, ikutu oso berezia ematen baitio gure jatetxe eta beste guneei.



Plastiko hau birziklatzeko lanean, laguntza izan dugu ere. [CMplastik](#) eta [Gravity Wave](#) enpresek batu egin dira itsasoetako zaborra garbitzeko eta horrekin gure zerbitzuetarako tresnak ekoizteko. Gainera, Madrileko Unibertsitate Konplutentseko itsas-biologia eta energia berriztagarrien ikerketa taldeak, sistema oso konplexua disenatu du itsasotik hainbat metodoen bidez energia lortzeko; eta makineria hauen muntaian [Enel Green Power](#) energia enpresaren laguntzarekin, gure instalazioak energia garbiz hornitzea lortu dugu.



Azkenik, gure enpresak eskaintzen dituen zerbitzu gehigarriak externalizatu egin ditugu eta horietarako ahomeeneko enpresekin bat egin dugu. Horien artean, Baleària itsas-garraio enpresako ferry-ak bezeroak geltokietatik Lampreara garraiatuko dituzte eta hainbat bisita gidatu antolatuko dituzte inguruko irlalara. Ekintza akuatikoak antolatzeko beste enpresa bat azpikontratatu dugu ere, baita beste zerbitzuak eskaintzeko enpresak (zerbitzariak, masaje-emaleak...)

